

III Galartza dta Erandonea Bilbau'ko pelota-lekuan

Barakaldo'ko Gurutzeta'ko gai-xotegian izen nintzen atzo, mutiko bat ikustatzera, mutiko orren aitarakin. Gizon au, pelotazale aundia dugu. Ez da arritzeko ere, palaz, pelotari aundia izena bait da «zale-tuen» mallan.

Ta jakiña, naitanaiezko genuen-da, ain bertan aurkitzen zitzaigun Bilbau'ko frontoira ere joan giñen, Ladis eta Iñaxio'ren arteko partidua ikustera.

Ez giñen alper gaiztoan joan! Asarre atera bait zen nere adiskidea zoritxarreko partidu ortatik, «Asegartze»ren aurka itz borobillak esaka.

Ez dakit arrazoirik bai ote zuen. Izanere, zer besterik egin dezake «Asegartze»k atzo ikusi genituen pelotariekin?

Bilbau'ko Frontoia, «Club Deprtibo» edo «Kirol-Alkartea»ren frontoia, palaz jokatzeko frontoia da. Eta ortarako, berdiñik gabea. Ez da ordea eskuz jokatzeko egiña. Oridalata jokatu ote zuten ain gaizki Ladis'ek eta Iñaxio'k, Ladis'ek batez ere? Iñaxio, bere partidua bere erara egiñez, ez bait ditek gaizki ogon zenik esan.

Ez dut uste ori frontoiari-buruzko aitzaki ori baliozko aitzakia izan daitekeanik. Direla amabots egun Gazteiz'ko Mendizorra'n ikusi genuen jokua bezalakoa izen bait zen atzokoa.

Alare, gauzatxo batean arrazoi aundia zun nere adiskide orrek Asegartze'ren aurka. «Asegartze»k badaki nolako partidua atera dezaket pelotari oiek. Eta ori jakinda, atzoko partiduko sarrera 6.000 peztara jartzeko eskubiderik ez zun. Ezta Fernando Arretxe'k eta Iñaxio Errando- ne'ak jokatu bearra duten partidua ikusteko sarrera 10.000 peztara jartzeko ere.

«Ainbeste eskatu ta orren gutxi eman» oiuz zegen nere adiskideak. Eta ortan, arrazoi guzia berea zun.

Partidu berari dagokionez, zer esan? Mendizorrotza'n jokaturakoaren antzekoa izen zela.

Mendizorrotza'n errez eta nai zun bazala jokatu zun Fernando Arretxe'k, berebiziko polotakadak emanez. Ez bait zun etsairik izen. Bilbau'n, errez eta nai izen dun bezala irabazi du Iñaxio Errando-nea'k. Ez bait du etsairik izen.



Alare politasunaren aldetik, politaheagoa izen da Bilbau'ko partidu au, tantoak luzexegoak izen direlako.

Ederki jo dute atzera bi pelotari-ek, Arretxe'k ere Medizorrotza'n ederki jo zun bezala.

Baña ortan ez dute batere meriturik, ori, kixazko atzelari batek errez egiten dun gauza bait da. Ba, ortaz gaitzera ez zuten ezer ikusgarri-rik egin, Errandonea'ren iru-lau aldiz bi ormatara efektoz bidalitako pelota aiek izen ezik.

Oiek bai; orrela lortu zitun tanto oiek benetan ederrak izen ziren. Ederki saiatu da eta ederki ikasi du joku ori Iñaxio'k. Or dauke dator- kion partiduan zerbait egin al izeteko gilitza. Fernando Arretxe'k ori egiteko egokitasunik ematen ba- 'dio, jakiña.

Ladis ere, atzo, Errandonea'k egin zunaren antzeko zerbait egi- ten saiatu ba'litz, aski dotorea irten ziteken bilbau'ko partidua. Baña, Ladis'ek ez zun tantoak batere arrazoirik gabe galdu ta galdu bes- terik egin. Zer gertatzen ote zaio



mutil oni? Orrelako partidu txarrak egin izen ditu, baña atzokoa izen zen bere bizitza guztian egin dun txarrena.

Errandonea'k bere jokua egin zuen. Jo ta jo, ederki gaitzera, Ladis'ek beñio obeki eta atzerago, eta, al zunean, aipatu ditugun bi orme- tako jokaldi bikain oiek: partiduko osoko jokaldirik politenak!

Sakea obeagotzen saiatzan ba'da, -oso ezerezak izen ziren ba atzo ikusi genituen sake guztiak-, eta bi ormetako joku ori ain ederki ateratzen ba'zaio, lanak eman de- zazkioke Fernadori, eskuz-eskuzko txapelketa txiro onen azkeneko partiduan.

Jendeari-buruz, berriz, zer esan? Oso ikusle gutxi izen zela atzo Bil- bau'un ere, len Mendizorrotza'n bezala. Berreunenbat sarrerako txartela eroatera urbidu zirenak, nere adiskideak jakin al izen zunez.

6.000 pezta asko eskatzea dela, dirutza orren truke orren gutxi es- kaintzeko.

Latiegi'tar Bixente

Erronkari'ko uskararen jakintza

Erronkari'ra joateko asmotan nenbillen lengo egun batean. Donostia'n bizi naizelarik, Ber- nardo Estornes Lasa ondoan daukatelako, nai ta naiez, ikusi bearra nuen. Elkar-izketa batera- ko berealaxe artu ninduen. Laro- gei ta zazpi urte ditu, begiratu zorrotza, begiak erne, burua ten- te. Bere bizitzaren asmorik zora- garriena betetzen dabil; erdera ta Erronkari'ko uskararen iztegi oro- korra. Emendik gutxira eskuetan izanen dugu liburu mardula. Or- txen agertuko ditu Erronkari'ko uskararen itzak, ogei millatik goi- ti. A ze aberastasuna! Erronkari- 'ko itzak biltzen aspaldi asi zen, 1929'garren urtean ain zuzen. Isaba'ko amona zarrak lagundu zioten, batez ere Bidart etxeko Mikelak eta Baixtero etxeko Ma- nuelak.

Gaitzera, Erronkari'ko euskaraz idatzitako liburu zarrak ikusi ditu. Ortze dire Bidangoz'ko Pruden- zio Hualde'k egindako Astete ikasbidearen itzulpena, baita ere Bidangoz'ko Mariano Mendigat- xak egindako salmo berrogeita amargarrenari buruz, eta Orreaga delako abestiarena, Julian Gaya- rre'k bere arrebari egindako es- kutitza. Resurrektion Maria Az- kuek bildutako Erronkari'ko esaerak, itzak eta abestiak eza- gutzen ditu. Bertze langille au- nitzten lanak ere bai: Bonaparte, Kanpion, Larreko (Fermín Iriga- rai), Aingeru Irigarai, Mitxelena, Billasante, San Martin, Artola, Garde ta abar. Batez ere karrikan entzuten zituen itzak biltzen ale- gindu zen. Amatxi zar baten erantzuna auxa izaten zen: «Zoazte kutxitxarrera».

Zalantzarik gabe, ekialdeko (Nafarroa, Aragoi) euskal kultu- raren aztarnak nolakoak diren ja- kiteko, bearrezkoa izanen dugu Bernardo Estornes'en lan ori. Or- txen ditugu jakintza sakon baten erroak.

Nor da esukaldun jator au? 1907'garren urtean Isaba'n jaio zen. Aita Arette'koa (Biarno) du. Gurasoak salerosketatik bizi zi- ren. Gaztetatik Zaragoza'ra dijoa ikastera. Erronkari'ri buruz lenen- go lana 1927'garren urtean idaz- ten du. 1929'garren urtean Do- nosti'ra dator lanera, euskal ikaskuntzaren elkarteko liburutu-



Bernardo Estornes.

gira ain zuzen. 1934'garren ur- tean Zabalkundea delako irarkola sortzen du. Anaiarteko gudea da- tor 1936'garren urtean. Biziori eustearren erbestera dijoa, Chile- 'ra urte aunitztarako. 1958'garren urtean Donosti'ra itzultzen da ta AUÑAMENDI irarkola sortzen du. Amar urte geroago, 1968'ga- rren urtean Euskalerrri'ko Enziklo- pedia delako liburu mardulak ar- gitaratzen asten da. Gai aunitz berak idazten ditu, batez ere edestiari buruz. Obagoz'ko eus- kal abesti zarren bildumaren ber- riak berak jaso zituen 1970'ga- rren urtean. Berria jaso bai, liburuau ez dute arkitu.

Nundik datorkio euskal zaleta- suna? Txikitari ez du euskaraz ikasi. Aiton amon Erronkari'koak gazterik il zitzaizkion. Orrengatik gelditu zan aurtzaroan euskararik gabe. Euskal abartzaleen berriak, lendabiziko aldiz Zaragoza'n es- kuratu zituen. Kanpion, Iturralde ta Oloriz idazleen liburuak irakur- tzen, gaztaroan, euskal sua pixtu zitzaion. Geroztik euskaragaz na- gusitzen alegindu da. Maitasuna berexia berriz Erronkari'ko uska- rari dio. Bizitza amaitzerakoan, maitasun ori jakintza biurtu zaio.

Latxaga

Berri ona

Geure neurriko Jainkoa «Bere-berez ematen du lurrak uzta»

GAURTIK aurrera Jesus parabolan itzegiten arituko zaigu. Bizitza parabolan kontatu- ko digu.

Parabola, konparazioa, ipuiña... jende xumeak gauza sakonak errez uler ditzan erabiltzen den adierazpen modua da. Jesus- ek modu au maiz erabili oi du bere mezua agertu nai duenean. Jesus-ek erria- rekin eta erritarrekin arreman sakonak eta aundiak izan zituen. Ortik artzen zituen parabola guztiak. Nekazai-ekin asko eta askotan itzegiten zuen. Izan ere, baserritarren jakinduria oso sakona da, bizitzatik ikasitako jakinduria delako.

Baserritar askori entzun diet gure errian soroan azia erein ondoren edota belarrak ganbaran sartu dituztenean eta euri zaparra ederra ari duenean, onoko au: «Kanpoa beintzat irabazten ari da». Lurra lantzen duenak badaki guztia ez dagola bere esku, eguraldiak ere lagundu bear du lurrak berea emango badu.

Zer erran nai ote du Jesus-ek ereillearen parabola onekin? Gizakiak eta Jaungoikoak egiten dutenen asiera eta amaiera. Bien ekintzak ez dira kontraesa- nekoak, osagarriak baizik. Bakoitzak dagokiona egi- ten du: gizonak erein eta Jaungoikoak aztea eta

eltzea ematen dio gizakiak egiten duenari.

Garai guztietako jendea Jaungoikoa bere neurriari egin zale izan da. Eta guk pentsatzen genuen ura ondo irtetzen ez bazaigu, Jaungoikoaren kontra jeikitzen gera. Nun da Jaungoikoa? Zer egiten du bere errukia eta gogo ona ez agertzeko? Zergatik utzi gaitu emen bakarrik? Eta antzeko galderak sortu oi dira geure barnean.

Ez da bidezkoa Jaungoikoaren ekintzak eta miste- rioa gure ikuspuntu laburrarekin neurtzea. Ez gera kapaz Jaungoikoaren aunditasuna ikusteko eta kon- prenitzeko.

Gogoan izan bear dugu kristauok Jaungoikoaren ekintza eta Aren Erreinuko indarrak neurri gabeak direla. Elizak ematen diguna baiño askoz aundia- goak eta ederragoak dira. Ez da berdin, noski, Jaun- goikoaren Erreinu eta Eliza.

Jaungoikoak badu gure bearrik bere aunditasuna ta edertasuna erakusteko. Gizakiarik gabe Jaungoi- koak ez du askorik balio. Orrengatik egin zen guretar.

Ni gaurkoan Juan XXIII'ak erran zuen arekin gel- ditzan naiz: «azientzia bear dugu: zuztar garratzak izan arren, fruitu gozoak ematen ditu».

Artzalluz'tar Joxemari

Baztango mendigoizaleak

Baztan alde huntan ere bertze lekuetan bezala, bada mendiza- letasuna eta badugu gure Elkar- tea: «Baztango mendigoizaleak».

Gure Elkarte horrek garrantzi haundiko ibilaldi bat antolatu du Ekainaren 12-rako eta alderdi guztietako mendizale Elkartek gonbidatuak daude ibilaldi hor- tan parte hartzera. Ibilaldia Eli- zondotik abiatuko da eta hemen erakutsiko dut nondik barna ibili beharrak diren:

Elizondo, Gartzain, Irurita, Abartan, Saioa, Artesiaga, Argin- tzu, Azaldegi, Peña Alba, Urba- llo, Harri-Kulunka, Belaun, Ber- daitz, Basabar, Irlintzi, Oketa, Elizondo (hel- muga).

Mendizaleak Taldeka bereziak daude. Arauak dionez, irteeraren kontrol-postuak dagokion txar- tela emanen zaie parte hartzaile guztieri, ezarritako kontrol pos- tuetan erakusteko. Lehenengo Taldearen irteera goizeko 6-etan izanen da.

Bidea behar bezala señaletza- tua egonen da. Ez omen da iño- lako Saillkapenik izanen. Diploma bana emanen zaie finkatutako

denboretan kontrol-postu guzie- tatik pasa diren guztieri. Ibilaldi hau ez da lasterketa bat, mendi- zaleen ibilaldia negurtua dago. Antolatzaileek osasun postuak ezarriko dituzte, haietan edozein unetan behar diren laguntzak emateko. Ibilaldi hau interesgar- ria da eta garrantzi haundikoa. Gure baztandar mendizaleen ar- tean orain arte ez dugu egunda- ño antolatu izan holako mail haundiko ibilaldirik.

Har dezatela mendizale baz- tandar hoiek gure zorionik kar- tsuenak eta erran dezagun ere zuen lanak baduela merezimen- du. Mendi zaletasuna daukan gazteak erakusten du bere maita- suna naturari, mendi gallurretan haize osasungarria hartuz eta Yainkoak eman dizkigun ederta- sunak goraiapatuz.

Mendi gainetan ibiltzen denak maite du edertasuna, alaitasuna bihotzean ta gorputzean osasuna. Hemen bozkarioz beterik badut zoriontasuna, gure Jainkoa gurtu dezagun erakutsiz maitasuna.

M. Izeta